

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

10 eta 17 urte arteko 22.000 adingabek baino gehiagok parte hartuko dute Nafarroako Kirol Jokoen beste edizio batean

22 kirol-modalitatek osatzen dute, eta Foru Gobernuak 1,15 milioi euroekin finantzatzen ditu

Martes, 18 de agosto de 2015

Foru Gobernuak [Nafarroako Kirol Jokoen](#) 29. edizioa [antolatu](#) du eta, oraingoan, 10 eta 17 urte arteko 22.000 haur eta gaztek baino gehiagok parte hartuko dute.

Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuak 1,15 milioi euroekin finantzatuta, diziplina bakoitzeko alebin, infantil, kadete eta gazte mailetako Nafarroako txapelkunak erabakitzen dituen txapelketa ofizial bakarra da.

Nafarroako Kirol Jokoa federazioen bidez antolatzen dira, eta 33 kirol-modalitate hartzen ditu barnean. Honako hauek dira: urpeko jarduerak (hegats-igeriketa), xakea, atletismoa (krosa eta pista), badmintona, saskibaloia, eskubaloia, beisbola, txirrindularitza (BTT, errepidea eta pista), kirol egokituak, neguko kirolak (iraupen-eskia), mendiko kirolak eta eskalada (orientazioa, araututako martxak eta eskalada), eskrima, futbola (zelaikoa, areto-futbola eta emakumeen futbol 8), gimnastika (GAF, GAM eta GR), golfa, herri kirolak, hipika, judoa eta hari lotutako kirolak, karatea, igeriketa (igeriketa, waterpolo eta igeriketa sinkronizatua), padela, patinajea (abiadura eta hockeya), pilota (esku-pilota, zesta punta, erremontea, gomazko paleta, larruzko paleta, pala motza eta trinketea), piraguismoa, arraunketa, errugbia, taekwondo, tenisa, mahai-tenisa, arku-tiroa, triatloia (triatloia eta duatloia), bela eta boleibola.

Lehiaketak irailaren 1etik 2016ko urriaren 30era egingo dira larunbat goizetan, oro har. Gainera, kirol-sustapeneko edo izaera ludikoa duten beste jarduera batzuekin batera egin ahalko dira.

Nafarroako Kirol Jokoa antolatuz, Foru Gobernuak ondorengo helburuak lortu nahi ditu: adingabeen artean kirolaren balioak sustatzea; ezarpen gutxiko kirol-modalitateak sustatzea; etorkizuneko proiektzioa duten kirol-talentuak hautematea eta kirol-talentoaren teknika edo entrenatzaileak pixkanaka prestatzea.



Aurreko Kirol Jokoen edizio bateko patinajeko proba.

Parte-hartzaileak eta mailak

2014-2015 ikasturteko Nafarroako Kirol Jokoen edizioan, 22.500 adingabekok parte hartu dute; deialdi honetan, zifra horri eustea espero da eskainitako kirol-modalitateen kopurua finkatu egin baita.

Nafarroan eskolatutako edo bertan bizi diren 10 eta 17 urte arteko kirolari guztiek parte har dezakete, Nafarroako Kirol Elkartearen erregistroan inskribatutako kirol-klub batekoak direnak.

Alebinetan, 2004 eta 2005 urteetan jaiotako adingabeak lehiatuko dira; infantiletan, 2002 eta 2003 urteetan jaiotakoak; kadetetan, 2000 eta 2001 urteetakoak; eta gazte-mailan, 1998 eta 1999 urteetan jaiotakoak. Gainera, kirol-modalitate batzuetan benjamin-maila gehitu ahalko da 2006 eta 2007 urteetan jaio direnentzat.